

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Larraungo kontsultategian, Lekunberrin, errehabilitazio-unitate bat egongo da

Dominguez kontseilariak instalazioak inauguratu ditu; Irurtzungo eta Leitzako osasuneko oinarrizko zonetako 11.814 lagunek erabili ahal izango dituzte

Astelehena, 2018.eko ekainak 18

Larraungo kontsultategian, Lekunberrin, jada badago errehabilitazioko unitate periferikoa, Irurtzungo eta Leitzako osasuneko oinarrizko zonetako 11.814 lagunek erabili ahal izango dutena. Era horretan, kontsultategia handitzeko eta berritzeko obrak egin behar izan dira, eta, gaur goizean, Fernando Domínguez kontseilariak inauguratu ditu.




Domínguez kontseilaria Larraungo kontsultategiko langileekin, Lekunberrin, errehabilitazio-unitate berrian.

Zehazki, kontsultategiak 105 metro karratu ditu orain, eta berritu ere egin da instalazio berriak jartzeko: medikuntzako kontsulta, erizaintzako kontsulta, errehabilitazioko eta fisioterapiako medikuaren kontsulta eta errehabilitazioko gimnasioa.

Obrak egiteko, Nafarroako Gobernuak 300.459 euroko diru-laguntza jarri du. Bestalde, Osasunbideak-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 43.038 euroko inbertsioa egin du ekipamendu orokorra eta klinikoa jartzeko, batez ere errehabilitazioko aparatuak: hidrokolatorea, karbonozko bizikleta, ultragorrien lanpara, ultrasoinuen ekipoa, parafina berogailua, izozkailua, elektroestimulazioko ekipoa, korrante interferentzialen ekipoa, laser-modulua, bi esku-ohet hidrauliko eta material ezberdina.

Bisitan, kontseilariarekin batera honako hauek egon dira: Larraungo alkatea, Javier Barberena; Lekunberriko alkatea, Natalia Azcona; Lehen Arretako zuzendari kudeatzailea, Santos Induráin; ibarreko herrietako udal-ordezkariek; osasun-arloko profesionalak; eta obrak egin



dituen enpresako ordezkariak,
besteak beste.

Domínguez kontseilaria eta kontsultategiko
arduradunak, errehabilitazioko gela berrian.

Kontsultategia

Kontsultategia handituta, osasun-zentroa honela banatu da: medikuntza orokorreko 2 kontsulta, pediatriako kontsulta 1, erizaintzako 2 kontsulta, errehabilitazioko eta fisioterapiako medikuaren kontsulta 1, errehabilitazio-gela 1, hartze eta administrazio eremua, itxarongelak, komunak eta biltegia eta officea.

Larraungo kontsultategia Irurtzango osasuneko oinarrizko zonara adskribatuta dago, eta, bertan, Lekunberriko eta Larraungo Ibarreko bizilagunak artatzen dira: Albiasu, Aldatz, Alli, Arruitz, Astiz, Azpirotz, Baraibar, Etxarri, Errazkin, Gorriti, Uitz, Iribas, Madotz eta Oderitz.

Zentro horrek 2.351 osasun-txartel esleituta ditu, eta horietatik 572 pediatria-adinekoak dira. Zentroa handitu bitarte, 2 mediku orokor, pediatra bat, hiru erizain eta administrari bat egon dira.